

Adibidez: *aitari natorkio; adixkideekin samurtu da
Piarresen kontiak mintzatu dira; aita-tzat daukate.*

d) joskera hainizkuna (múltiple): aditza asko osaigailuz lagundua dago:

Adibidez: *hezur bat eman diogu zakurrari*

Huna *eman* aditza nola agertzen ahal ginenken *eman* (342) ama(i)te / *eman* / *emanen(gu)* / DU

Joskera motza: badaki emaiten, ez da zekena; haizeak ematen du; bikotzak ematen dautzun bezala egizu mintzatzean eleak berak ematen du; emak hor!; emazu hortik.

Joskera bakun zuzena: bere liburu guziak eman ditu; zazpi jantziak emanen dituzte; noiz emanen duzu hitzaldia; kasu emazu; 9 urte ematen du.

Joskera bakun zeiharra: errege bati eman den bezala; jatera eman; erakusterat eman; edanari emana; emaztetarat emana; aitari ematen dio; dena aita da; emagun egia dela ez denetik nork emanen?; bi gauza horiek elgarri emanak dira.

Joskera hainizkuna: emozu begi egiteko horri; liburua eman diot Pellori; emazu liburua mahainaren gainean; bikia eman ginuen hazitako berex; emagun lege hori beharrezko bezala; haren errana egiatzat eman zuten; gizona murruari kontra ematen dute; haurrik ez eman jostatzen, itsas-hegi hortan: leku gaixtoa da; nori berea eman behar zaio; abisu eman zigun holakorik ez egiteko; ailema denek euskara begira dezagun.

OLAGINTZAKO ITZAK

1976-VI-25

J. Garmendia Larrañaga

JAUNAK

Eskulangintzari buruz ez naiz idatzi zaarra. Ta orduan esaten genuen gauzetako bat auxe zen: eskulangillea ez dela

makinapean bizi izan. Sarritan ez duala argindarrik erabili, baizik bere burua izan duala motor. Aipatutako lantxo berean adierazten genuan ere eskulangillea jabetzen zela bere erortzeaz, ots, ezin zala salmentan pareatu lantegi andi ta aurrera-koiagoarekin, naiz-ta bai, bein baño geiagotan, lan-gaiaren ontasunean.

Orrela-ba, zenbait lantegi txiki, mota aietakoak, zenbait lankera, izkutatzen dijoaz, orain bat eta gero bestea, eta beraien eskutik, bat-batean, bizimodua, gauza ta izen anitz erabat betiko aaztu ta galtzen.

Eta, izkuntza aldetik, azkeneko gogorapen onen garrantzia aintzartuaz bereala irakurriko dizkizutet egun, gutxi era-biltzen diren edo batere erabiltzen ez diren izenen lerrotxo bat, 25 izen ain zuzen, denak antzinako gure ola edo burdin-langintzarekin zer ikusia izan zutenak.

Itz auek neure gai onen txarteltegikoak dire, berreun baten artetik aukeratuak. Denak, orain ikusiko ditugunak eta berdin astirik gabez ixilean gelditzen direnak, itz-artean edo gazteleraz idatzitako bere kontestoan dijoaz. Esan nai dugu beraz, ez dirala an-emenka, bakarka eta bere esanaiaren ezkjakinean arkitutakoak. Aita Villasanteri irakurri dugu —“Características de la obra ‘Gero’ de Pedro de Axular”en—, “Arraina uretan denean da arrain, hitza ere, esaldi barruan atxemaiten duzunean, orduan eta orduan bakarrik, dakizu zuzen eta zihur zer den”.

Adierazi nai genuke ere bilduma ontarako, ta erizpide bateri jarraituaz, ez dirala gogoan artuak izan iztegi gisara prestatutako lanak, Mogelen “Peru Abarkan” eta 1960 garrengo V garren “Euskeran”, Xabier Zubiaurren “Mogel eta burdigintzan” arkitzen direnak, adibides. Zubiaurrenen lan au, Larramendi eta Mogelen oinarritua batezere, Juan San Martinen bidez eskuratua dugu.

Eta orain sar gaitezen gure gaurko gaian.

AGUA PALANCA

“Agua palanca izeneko barra andi bat”.

(“Una barra grande llamada “agua palanca”)

(Leitzako Ibero oleko inventario edo arkibidetik jasoa. 1860 garrengo ekainaren 28koa. Egun nere eskuetan).

ALDABARRAK

"Boga, boba edo boa burkoetan tinkatzeko egurrik, aldabarrak zeritzaten. Aldabarrak ziriz ermotzen ziren."

("Los tablones o maderas para sujetar la "boga", "boba" o "boa" en las "burkoak" recibían el nombre de "aldabarrak". Los "aldabarrak" se afianzaban por medio de cuñas").

Eugenio Zubeltzuk emandako berriestatik jasoa. Ibarreko "Azkue la nueva" kobre ontzitegian lan egia dugu Zubeltzu.

Mogel: Aldabarrak: Puntales del "boga" ("Peru Abarka")

Azkue: Aldabar: "Puntales que sostienen el mazo de ferrería".

ARDIE

"Azkue la nuebako zepuak tinkatzen zituzten zurak, 'ardie' izenarekin ezagutzen ziren. Olaren zolairu azpian arkitzen ziren 'ardiek'.

("Los cepos de la ferrería "Azcue la nueva" iban sobre una madera conocida por 'ardie'. La 'ardie' quedaba por debajo de la planta de la ferrería").

Felix Etxeberria, Berastegiko arotz edo zurgiña izan duak esana. Felix Etxeberria, ta berdin ere bere gurasoak, "Azkue la nuevako" arotzak izan ziren.

ARIA

"Aria izeneko beste esku-agak bat, gabiko txingurak sartzeako".

("Otra-barra-para entrar-meter-los yunque del Martiente, que se llama "aria").

Leitzako Ibero oleko arkibideetatik jasoa. 1860garren ekainan 28koa. Egun nere eskuetan.

ASTUA

"Zankalatraba esertzen zen pertzkillea zuraje baten gañeko ool batetan. Zuraje onen izena, astua. Bi anka zituan eta 70 centimetro goibean".

(“El ‘pertzkillea’ tomaba asiento a horcajadas en una tabla dispuesta sobre un bastidor de madera con dos patas y 70 centímetros de altura, llamado ‘astua’).

Ibarreko “Pertz-olan” pertzkille izan zen Emilio Portalek esana.

ARZAYA PALANCA

“Artzaia palanka izeneko burdin aga bat”.

(“Una barra llamada “arzaya palanca”.)

Aipatutako Iberoren arkibidetik artua.

BERUA EMAN

“Kobreko ontziak sutegira eramate onek ‘berua eman’ zuan izena. Bañan lantegian ontzia otzean lantzen zen. Ontzi lantzearen eginkizunetan bati ‘berua eman’ izena ematen bazitzaion ere”.

(“Ese llevar a la fragua —las piezas de cobre— recibía el nombre de ‘berua eman’. Pero en el taller se forjaba con la vasija en frío, si bien uno de los cometidos de esta sección recibía el nombre de “berua eman”).

Emilio Portalek, Ibarreko “Pertz-olan” pertzkillea izanak, eta Karlos Bikandi, Amorebietako “Bernakolean” errebatidorea izanduak emandako berriak.

CHACURRAS

“Iltzeentzako bost iltze-eredu, bakoitza bi zatiz osatua: zatien izena: “txakurra”.

(“Cinco claveras para clavo con sus dos piezas llamadas “chacurras”.)

Leitzako Ibero oleko arkibidetatik artua.

DURMIENDA

"Inaziori, antepara, kurpilla ta durmiendan egindako bost eguneko lanarengatik..."

"Auspoteigiko durmienda berria antolatzen".

("A Ignacio, por cinco días que trabajó en la antepara, rueda y durmienda...")

("En prepara la nueva durmienda de la barquinera (...)".

Bizkaiko "Sarrikolearen" 1797 garren urteko langintza kontuetatik.

Mogelek eta Azkuek: Durmienda: "La pieza mayor de la ferrería; sirve de apoyo a todas las demás".

Baiñan argitasun gutxi ematen digute auek.

EGAZPIDE

"Lanean eta ikazkintzan asi zela Egazpide deitzen dion ondoko ta berari dagokion lekuau".

("Que había empezado a trabajar y hacer carbón era tocante y perteneciente de corte que llama Egazpide").

Azkue: Hegastegi: alero de la casa. Egatz: ladera de monte. Alero de tejado.

EGAZPIDE

"Aipatutako Inturia olaren txarakadiak eta Egazpideak".

("De los jarales y Egazpides de la dicha herrería de Inturia").

Berastegiko udal agiritegitik artua. 1651 garrengo ilbeltzaren 25 koa. Berastegi eta Elduaiengo erriek Pedro Aranalde ola-gizonarekin izan zituzten eztabaidatistik jasoa.

ENDAL ARRIE

"Eta 'endal-arrie' zuen izena 'endala' punpatzen zen burdin edo arriak".

("Y el hierro o la piedra donde rebotaba el "endala" recibía el nombre de "endal-arrie").

Felix Etxeberriak esana.

Mogelek: "Dendal-arria": Piedra bajo el "dendal".

Azkuek: "Dendarlarri": Piedra sobre que se fija el "dendal".

ENDALA

"Endala zeritzan burdinki bat zeramaten gabি-oñek muturretan, ardatz ortz duna ikutzen zutela".

("Los extremos de los "gabi-oñek" en contacto con el eje dentado llevaban un ferrado denominado "endala").

Felix Etxeberriak esana.

Mogelek: Dendala: Apoyo del "gabigun" : Sostén del mazo.

Azkuek: Dendal: Apoyo del mazo y su sostén en las ferrías.

EPAIPIDE

"Elizaraun barrutian Berastegi ta Elduaiengo erriek dituzten sarobeen oar-idatzia eta oola bakoitzak berez epaipide tartean dituanak auek dira".

("Memorial de los seles que tienen las villas de Berastegui y Elduayen en el término y jurisdicción de Elizaraun y entre los epaipides que tiene cada herrería de por sí son las siguientes:")

Berastegiko Ansonea baserrian arkitutako paperatatik.

Ixaka Lopez Mendizabalen iztegian: "Epaipide" : "Terreno comunal en el que es lícito a los vecinos el aprovechamiento de árboles, argomas, etc".

ESTAKA

"Errebatitzeko 'estaka' batzuek eta neurri ezberdiñeko burni malluak erabiltzen zituzten.

"Txingure tankeran bukatzen dan burni-agat bat dugu 'estaka'.

("Para el quehacer de batir contaban con varias 'estakas' y martillos de hierro de diferente tamaño.

La 'estaca' es una barra de hierro rematada en una especie de yunque").

Emilio Portalek esana.

FESTA - BURNIAS

"Plazaola, Berines, Olloquiegui ta Inturiako olak bederatzi kintal burni ordaintzen zuten bakoitzak 'festa-burni' edo zerga bezala, 1615 garrengoa urtean".

("Como 'festa-burnias' o impuesto pagaban el año 1615 las ferrerías de Plazaola, Berines, Olloquiegui e Inturia a cada nueve quintales de hierro").

Gipuzkoako Agiritegitik. 2064 garren paper-xorta. 72 garren orrian. 1615 garrengoa illaiaren 29 an.

FESTA - BURNI

"1628 garrengoa urtean Lorentzo Elussak bere gain artu ta kobratu zuan Inturia, Ollokriegi, Berines, Mustar, Ameraun eta Plazaola oletako ola-gizonek 'festaburni' deritzen zaion zergaren irutatik bi ordainduaz emandako burni totxoa".

("El año 1628, Lorenzo de Elussa se hizo cargo del hierro tocho cobrado de los ferrones de las ferrerías de Inturia, Olloquiegui, Berines, Mustar, Ameraun y Plazaola, por las dos terceras partes del tributo llamado 'festaburni').

Gipuzkoako Agiritegitik. 2055 garren paper-xorta. 137 garren orria. 1628 garrengoa abenduaren 30 an.

GABI - OÑE

"bere muturrean gabia edo mallu andia eramatzen duan abea".

("El tronco que en su extremo lleva el martillón").

Felix Etxeberriarengandik jasoa.

GUZUR - ASCAS

"Bere urak kurpil pota edo paletara botatzen zituan erreten zuzen edo zeartuak artzen zuan izena".

("Se llamaba así al canal vertical o inclinado que encauzaba el agua hacia las palas de la rueda hidráulica").

Joaquin Almunia: "Contribución de la Real Sociedad Vascongada al progreso de la siderurgia española a fines del siglo XVIII (1771-1793)," 14 garren deia.

GUZURRASCA

"Kurpil zizkuduna izango da, 21 oineko erdi lerroa dueña, ta zizku batean sartua dago, erri-izkeran aska perpendicular edo guzurraskan sartua zirkunferentziaren laurden batean".

("Tendrá la rueda, que ha de ser de cajones, 21 pies de diámetro y estará metida en un cajón, o en lo que bulgarmemente se llamaasca perpendicular o guzurrasca en la cuarta parte de la circunferencia").

Gipuzkoako Batzar Nagusiko liburutik artua. Donostian, 1806 garren urtea, uztan 2 tik 12 ra. Oletan doituzeko asmatua.

Mogelek: "Guzur-askea" : Pesebre falso.— Larramendik aipatzen du.

Azkuek: "Guzurraska": "cierto aparato de herrería".

KOPAKO - GABIA

"Bi gabi zeuden burni-urtegian; berdiña edo txapako gabia eta borobilla edo "kopako gabia".

("En la sección de fundición había dos martillones, el plano y el circular").

"Pertz-ola" eta "Bernakoleako" neure zeazketatik.

PALANKA SARDE

"Burni-agat motz bat, 'palanka sarde' deitua".

("Una barra corta llamada 'palanca sarde'").

Ibero oleko arkibidetik artua, 1860 garrengo ekainan 28 koa.

PERRAIKI

“Mea biltzeko perraiki bat”.

(“Un ‘perraiki’ para recoger vena”).

Zegamako Goenolearen paperetatik. Oñatiko Protokolo Agiritegitik. 3394 ko Sinatura, 20 garrengo orrian. 1787 garrengo otsailaren 6an.

Azkuek: “Perraol”: “pala de madera que sirve para aplastar y amoldar panes delgados de maíz”.

Azkuek: “Pelaki”: “tableta con mango en el centro, que sirve para recoger broza, escoria y otras cosas”. Zalduendan, “pelaiki” izenez ezagutua”.

“Pegakie”, Berastegin, elurra kentzeko erabiltzen zutena.

SUACHURRA

“Atxur andi bat, suatxurra deitua.”

(“Un azadón que llaman ‘suachurra’”).

1787 garrengo otsailaren 7 an, Zegamako Goenolean egin zen maisterkintzatik jasoa. Oñatiko Protokolo Agiritegitik. 3394 ko Sinatura, 20 garrengo orrian.

TOMAS

“Eta ‘Tomas’ izena zuan gabi txiki batera eramatzen”.

(“Y las llevaban a un martinete pequeño llamado ‘Tomás’.”)

“Azkue la nueva” eta “Bernakolean” neurek egindako zeazketatik.

PERTZKILLEAK

“Pertzkilleak izenarekin ezagutzen ziren lantegiko mai-xuak”.

(“Los oficiales del taller eran conocidos por el nombre de ‘pertzkilleak’.”).

“Pertz-olako” pertzkillea izan zen Emilio Portalek esana.